

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Lege hau baino maila beherekoago xedapenak, lege honetan ezarritakoaren aurka doazen alderdi guztietan, indarrik gabe geldituko dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenbizikoa.— Eusko Jaurlaritzak lege hau garatzeko behar adina xedapen eman ahal izango ditu; horrek ez die ezertan eragingo lurralde historikoek mahasti-zaintzaren gaineko arauak, erregelamenduak eta administrazio-zioak garatzeko dituzten eskumenei.

Bigarrena.— Eusko Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko egunean sartuko da indarrean lege hau.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2004ko maiatzaren 18a.

Lehendakaria,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

**NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA****Zk-2679**

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko dekretuarena: «33/2004 Dekretua, otsailaren 10ekoa, erlezaintza antolatzeari buruzkoa».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuak 24.2 a) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak testua argitaratzeko agindu duten organoek zuzenduko dituzte, baldin eta nabarmenak badira, xedapen, egintza edo iragarkien esanahia aldatzen ez badute eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian testu osoa edo kasuan kasuko testu-zatia zuzenduta argitaratzeko aginduko dute.

Aipatutakoen moduko akatsak egin dira erlezaintza antolatzeari buruzko otsailaren 10eko 33/2004 Dekretuaren euskarazko testuan (2004ko martxoaren 5eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 45 zk.). Beraz, dagokien zuzenketa egiten da ondoren:

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas aquellas disposiciones de inferior rango en todo aquello en lo que se opongan a lo establecido en la presente Ley.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— El Gobierno Vasco podrá dictar cuantas disposiciones fueren precisas en desarrollo de la presente Ley, sin perjuicio de las facultades de desarrollo normativo, reglamentario y administrativo que en materia de viticultura corresponden a los territorios históricos.

Segunda.— La presente Ley entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 18 de mayo de 2004.

El Lehendakari,

JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA
Y PESCA****Nº-2679**

CORRECCIÓN DE ERRORES del Decreto 33/2004, de 10 de febrero, de ordenación de la apicultura.

El artículo 24.2 a) del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones materiales que se infieran claramente del contexto y no constituya modificación o alteración del sentido de las disposiciones, actos o anuncios, pero cuya rectificación se estime conveniente a fin de evitar posibles confusiones, se salvarán por los órganos que hayan ordenado su inserción, instando la reproducción en el Boletín Oficial del País Vasco del texto o la parte necesaria del mismo con las debidas correcciones.

Advertidos errores de dicha índole en el texto en euskera del Decreto 33/2004, de 10 de febrero, de ordenación de la apicultura, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 45 de 5 de marzo de 2004, se procede a su oportuna corrección:

– 3. artikuluko c) idatz-zatian, 4203 orrialdean, hau dio:

«c) Nekazaritza-lurrak polinizatzekoak: nekazaritza-ko-alorrak polinizatzeko erabiltzen dira batez ere (NP).»

Eta hau esan behar du:

c) «Soroak polinizatzekoak: nekazaritzako-alorrak polinizatzeko erabiltzen dira batez ere (SP).»

– 11. artikuluko 2. puntuan, 4206. orrialdean, hau dio:

«2.– Erleen gaixotasunei aurre egiteko koordinatuta egon behar dela kontuan hartuta, Erleen Osasun-Plan bat prestatu eta koordinatuko da. Plana gainbegiratzea foru hori Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren agindu baten bidez garatuko da, eta gutxienez barroasiaren eta loke amerikarrari aurre egiteko Osoko Plan bat jasoko du; Euskal Autonomia Erkidegoan erleek osasunaren aldetik zein egoera duten, horren arabera beharrezkotzat jotzen diren planak jasoko ditu, halaber.»

Eta hau esan behar du:

«2.– Erleen gaixotasunei aurre egiteko koordinatuta egon behar dela kontuan hartuta, Erleen Osasun-Plan bat prestatu eta koordinatuko da. Plana gainbegiratzea foru aldundiei dagokie, nork bere lurralde-eremuan. Plan hori Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren agindu baten bidez garatuko da, eta gutxienez barroasiari eta loke amerikarrari aurre egiteko Osoko Plan bat jasoko du; Euskal Autonomia Erkidegoan erleek osasunaren aldetik zein egoera duten, horren arabera beharrezkotzat jotzen diren planak jasoko ditu, halaber.»

– Testu osoan «erletegi» agertzen den guztietan, «erlategi» esan behar du.

– 5. artikuluko 2. puntuan, 4204 orrialdean, hau dio:

«2.– Identifikazio-marka ugalketa-kamararen aurrealdean edo atzealdean jarri beharko da, agerian beti; estalkia ixtea ez du eragotziko; plastikozkoa izango da, horia; neurria: 46 x 50 mm; 14 x 4 mm-ko torloju baten bidez erlauntzari itsatsita egongo da.»

Eta hau esan behar du:

«2.– Identifikazio-marka umetegiaren aurrealdean edo atzealdean jarri beharko da, agerian beti; estalkia ixtea ez du eragotziko; plastikozkoa izango da, horia; neurria: 46 x 50 mm; 14 x 4 mm-ko torloju baten bidez erlauntzari itsatsita egongo da.»

– En el apartado c) del artículo 3, página 4203, donde dice:

«c) Nekazaritza-lurrak polinizatzekoak: nekazaritza-ko-alorrak polinizatzeko erabiltzen dira batez ere (NP).»

Debe decir:

c) «Soroak polinizatzekoak: nekazaritzako-alorrak polinizatzeko erabiltzen dira batez ere (SP).»

– En el punto 2 del artículo 11, página 4206, donde dice:

«2.– Erleen gaixotasunei aurre egiteko koordinatuta egon behar dela kontuan hartuta, Erleen Osasun-Plan bat prestatu eta koordinatuko da. Plana gainbegiratzea foru hori Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren agindu baten bidez garatuko da, eta gutxienez barroasiaren eta loke amerikarrari aurre egiteko Osoko Plan bat jasoko du; Euskal Autonomia Erkidegoan erleek osasunaren aldetik zein egoera duten, horren arabera beharrezkotzat jotzen diren planak jasoko ditu, halaber.»

debe decir:

«2.– Erleen gaixotasunei aurre egiteko koordinatuta egon behar dela kontuan hartuta, Erleen Osasun-Plan bat prestatu eta koordinatuko da. Plana gainbegiratzea foru aldundiei dagokie, nork bere lurralde-eremuan. Plan hori Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren agindu baten bidez garatuko da, eta gutxienez barroasiari eta loke amerikarrari aurre egiteko Osoko Plan bat jasoko du; Euskal Autonomia Erkidegoan erleek osasunaren aldetik zein egoera duten, horren arabera beharrezkotzat jotzen diren planak jasoko ditu, halaber.»

– En la totalidad del texto, donde dice «erletegi» deberá decir «erlategi».

– En el punto 2 del artículo 5, página 4204, donde dice:

«2.– Identifikazio-marka ugalketa-kamararen aurrealdean edo atzealdean jarri beharko da, agerian beti; estalkia ixtea ez du eragotziko; plastikozkoa izango da, horia; neurria: 46 x 50 mm; 14 x 4 mm-ko torloju baten bidez erlauntzari itsatsita egongo da.»

Debe decir:

«2.– Identifikazio-marka umetegiaren aurrealdean edo atzealdean jarri beharko da, agerian beti; estalkia ixtea ez du eragotziko; plastikozkoa izango da, horia; neurria: 46 x 50 mm; 14 x 4 mm-ko torloju baten bidez erlauntzari itsatsita egongo da.»